



## IKASTURTEAREN HASIERA (II)

### ORDEZKOAK

Hezkuntza departamentuak ordezkoen aferari behar bezala heldu gabe segitzen du eta honek bere isla dauka bai langileon lan baldintzetan nola ikastetxeen funtzionamenduan.

Hainbat ikastetxeetan ohi den bezala irakaslerik gabe hasi da ikasturtea. Egoerarik lazgarriena Otsagin pairatu dutelarik.

Bestalde, sindikatuokin kontsultatu eta adostu gabe aurten Bigarren Hezkuntzako irakasleek ezin izan dute plaza hartu aurrez Lehen Hezkuntzako plaza bat hartua bazuten, orain arte egin den bezala.

Erabat onartezinak diren perfilekin atera dituzte hainbat lanpostu. Adibideen zerrenda amaigabea da, honatx hauetariko batzuk: Gorputz Hezkuntza Musikarekin, Geografia eta Historia Musikarekin ere, Frantsesa edota Ingelesako perfila daramaten hainbat espezialitatetako plazak...

Hauek dira gure oinarrizko aldarrikapenak:

1. **EGONKORTASUNA** ordezkoentzat. Iruzur nabarmena den urtez urteko kontratu administratiboarekin bukatu behar da. Beharrak segitzen duten bitartean lanpostu hori ordezkoarentzat izan behar da.
2. Esleipenean puntuen arabera ordenatutako **ZERRENDA BAKARRA ERABILI KIDEGO BAKOITZEKO** (EAEn bezala). Era honetan hautagai bakoitzak aukeratu ahalko du posible dituen espezialitateen artean.
3. **ESPEZIALITATE ETA HIZKUNTZA** bereizketa ilegal eta euskararen kontrakoarekin behin betikoz amaitu. Elebidunak hizkuntza bitan gaitua dago, beraz ezin zaio aukera hori mugatu. Euskara meritua da, eta egungo sisteman ez hau gauzatzen.
4. **ANTZINATASUNA, LAGUNTZA FAMILIARRA ETA UDAKO OPORRAK KOBRATU AHAL IZATEA.**

<http://www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza/publika>